

Plaza nagusia (I)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Plaza zaharra

Oñatin plaza eta plazatxo ugari izan dira historian zehar. Har-tarako leku apropos eta nasai samarrak bazeuden erdigune his-torikoan, alboko beste herri batzuekin konparatuta behintzat. Hori bai, bi erreken ertzetan gauzatzen ziren eremuetan erren-ditu beharra zegoen, hots, Ubao eta Arranoaitz/Antzuelas erre-ken ibar inguruetan, alegia. Hain zuzen ere, **bi ibai gazte hauek elkartzen diren angelutik urrin barik egituratuko da gizaldiz gizaldi Oñatin izan den plaza nagusia**, zabalera eta itxura des-berdinekin.

Guk hemen XIX. eta XX. mendeetan izan dituen aldaketak eta bilakaera azpimarratuko ditugu, batez ere. Erdi Aroan Oñatin moldatze joan ziren bi kale-auzo garrantzitsuenak, Kale Zaharra eta Kale Barria, Arranoaitz/Antzuelas errekek bereizi zituen ehundaka urtetan. Goiko auzotik behekorra etor-tzeko, zubia igaro beharra zegoen oraingo plazaren erdi ingu-ruan. Errekatik San Migel parrokiaren absiderantz zegoen tar-teak nahiz Zazpibideta eta Zarateko aldera dagoen bidegurut-zeak eremu hedatu eta handi samarra osatzen zuten. Honenbestez, **parrokiaren atzealde dotorea**, hormara erantsi-tako ataripe luze batekin, **bere osotasunean ikus zitekeen**.

Plaza zahar horretan egiten ziren, besteak beste, herritarren **batzarreak** Oñatiri zegozkion gai garrantzitsuei buruzko era-bakiak hartzeko, artean ez baitzegoen udaletxerik; **eta merka-tuak** ere zabalgunetxo horretan eratzen zituzten, batez ere Zarateko etxearen aurrealdean aurkitzen zen alderdian: ingu-ru horri **Berduraren plazatxoa** deitzen zitzaion berandura arte. Errekaren ondoan baziren eraikin batzuk, 1845eko plano horre-tan ageri denez, baina era irregularrean kokatuak. Jesuiten egoi-tza eta eliza izandakoak ere zutik zirauten plazaren eskumako barrenean.




E. Pichot-en margolana, 1877.

Plaza berriaren moldatze-prozesu luzea

Azaldu dugun egoera hori XVIII. gizalditik aurrera hasi zen an-tzaldatzen poliki-poliki: lehendabizi **Antzuelas erreka estali egin zuten**, aipatutako kale-auzo nagusi bien arteko komuni-kazioa erraztuz; **eta geroago udaletxe barroko-rokokoa jaso zen Manuel Martin Carrera** arkitekto beasaingar ospetsuaren zuzendaritzapea; gure herriko ikurretako bat bilakatu den erai-kuntza bikain hau 1764 eta 1778 bitartean burutu zen. Alabaina, **eraberritze-prozesu hori moteldu egin zen**, 1792tik 1839ra bata bestearen atzetik suertatutako gerra, inbasio eta istilu uga-riak zirela medio.

Lehenengo gerrate karlistaren (1833-1839) ondoren, ez zen, egia esan, hemen giro: unibertsitatea itxi egin zuten, ekonomia lur jota zegoen, herritar askok Ameriketarako bidea hartu zuten. Baina, **1845ean Oñatik Gipuzkoarekin bat egin zuela apro-betxatuz, agian, plaza eraberritzearen egitasmoari berrekin zitzaion**. Diputazioarekin hitzartutakoaren arabera Ormaizte-gitik San Prudentziorainoko errepide berria egin zen, eta horrek premiazko hainbat obra eragin zuen hiribarruan.


Bestalde, 1846ko uztailean Isabel II.aren gobernuak orain **hiri-gintzako plan orokorra** deituko genukeen dokumentu antzeko bat prestatzea agindu zien garrantzizko herriei. Oñati ere horien artean zegoen. Udalak Bergaran bizi zen **Mariano Jose Lasku-rain arkitekto** mutrikuarrari enkargatu zion zeregin hori. Las-kurain eskola neoklasikokoa zen eta hori garbi ageri da gauza-tu zuen plangintzan. Horretarako, kontzejuak izendatutako batzorde baten laguntza izan zuen arkitektoak.



1854-55-56-57. urteak

1858. urtea

1852. urtea



ENPARANTZA 1845

Plaza nagusiaren plano arkupeen obrak hasi aurretik.

Arkupeak eraikitzeko lanak

Udalak berehala onartu zuen arkitekto mutrikuarraren proposamena eta 1847ko irailaren 26an, Laskurainen proiektuaren arabera, parrokiari itsatsitako arkupeak eraikitzea erabaki zuen. Beraz, udaletxearen pare-pare, **plazaren bestaldean burutu ziren arkupeak egiteko lehenengo obrak 1849an**, gaineko etxebizitzak hurrengo urteetan amaitu baziren ere Agustin Biain kontratista oñatiarraren ardurapean. Hartara, San Migel parrokiaren abside ederra ia ezkutatutik geratu zitzaigun. Ordukoak ditugu, ba, gaur egun Txurrukaneko arkuak moduan ezagutzen ditugunak.

Beste arkupeak, **iparraldeko luzeagoak, berandutxoago modutu ziren**. Erabakia 1853ko irailaren 1ean hartu zuen kontzejuak. Horretarako, ordea, hainbat etxe erosi beharra zegoen eta hori lortzeko gestioei hasiera eman zitzaion. Egitasmo honen zuzendaritza ere M. J. Laskurain arkitektoari eskatu zitzaion, baina honek, gaixorik zegoelako, proiektua utzi egin zuen 1854an. Bere ordez **Antonio Kortazar donostiarra** proposatu zuen, gerora Donostiako zabalduaren arduraduna izango zena. **Obrak urte**

bereko irailean esleitu baziren ere, **ez zituzten 1857ko udara arte bukatu**. Hori arkupeei dagokienean. **Gaineko etxebizitzak**, herritar batzuk atzera egin zutelako, **ez baziren 1962ra arte amaitu**. Plazaren itxura bitxia izango zen, arkupeak eginda egon arren, etxe batzuk eraiki barik zeudenean.

Enparantza berriaren birmoldaketa hau burutu ahal izateko, **hainbat etxe, eliza eta eraikin eraitsi beharra egon zen**. Besteak beste, jesuiten egoitza eta eliza izandakoak, gaur egun Pago Uso elkarte eta Txantxiku ikastola aurkitzen diren inguru horretan; parrokiaren absideari erantsita zegoen atari-aterpe luzea; eta beste arkupeak jaso ahal izateko, ilara irregularra osatzen zuten zenbaitzuk: Berzosaren etxea, Tornas izenekoak, Irisarriren etxea, harategi zaharra edota Ballesterosena zeritzana, 1845ko planoan froga dezakezuen bezala.

Azken mende eta erdi luzetxo honetan makina bat denda, taberna, kafetegi, elkarte edota banku kokatu dira 1905etik aurrera **Foruen enparantza** izenez bataiatu zen plaza berri honetan. Xehetasun horiek, baina, hurrengo atal batean azalduko dizkizuegu.



Plaza nagusia (II)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Aurreko atalean esaten genuen bezala, XIX. mendean plaza berria egituratu zenetik gaur egunera arte, era askotako denda, taberna, kafetegi, banku, bulego, eskola eta elkartek eduki dute euren egoitza eta lan-lekua orain **Foruen enparantza** deitzen den eremu zabal horren inguruan. **Hutsune bat baino gehiago egongo dela jakinda ere**, horietako batzuk sailkatzen eta izendatzen saiatuko gatzaizkizue.

Kafetegiak eta tabernak

Kafe zaharra: Emeterio Madinabeitiak 1871n Ubao erreka gainean jasoarazi zuen etxearen beheko aldean kokatu zen 1920ko hamarkadara arte. Azken hogeita hamabost urteotan *Pago-Usa* ehiza eta arrantza elkartek darabil.

Garaikoetxea kafetegia: gerra aurretik hasi eta ondoren ere urte askoan egon zen plazako ezkerreko arkupeetan. Oñatiko kaferik handiena eta dotoreena zen orduan, terraza eta gozotegiarekin, batez ere herriko jauntxoek topalekua. Oso ospetsua egon zen hango *Peregrino* izeneko pastela.

Txurruka taberna: San Migel elizaren absideari erantsitako eraikinean luzaroan eten barik dirauena. Gerra aurretik jarri zuten **Florentina** eta **Maritxu Madina** ahizpek eta denbora askoan jarraitu zuten arduradun gisa. Orduan parroquia zen lokalaren jabea. Harrezkero makina bat tabernari desberdin pasatu da Txurrukanetik.

Oñati eta Arkupe taberna-kafetegiak: elkarren ondoan, aurretik Garaikoetxeak eduki zuen solairuan, erdibana banaturik. Oñati tabernak Arkupek baino lehentxoago atondu zuen bere negozioa. Biek dute terraza zabala arkupeetan nahiz plaza aldean.

Jostunak, oihal- eta arropa-dendak

Telesforo Letamendi sastrea eta ondorengoak: plazako 7. zenbakian, arkupeetan, jarri zuen Telesforok jostundegia XIX. mendean hondarrean; **Kornelio** semeak 1950era arte jarraitu zuen lanbide horretan; hura hil zenean, jantzi-denda gisa jardun zuten familiakoek beste hainbat urtetan, 1970etik aurrera *Yokin* izenaz umeentzako arropa-denda legez. Geroztik sendikoak ez diren beste merkatari eta bulegari batzuk ere baliatu dira lokal horretaz.

Kandido Letamendi, Malen Zelaia eta ondorengoak: hauek ere, hurrengo zenbakian eta 1921etik aurrera, arkupeetan eduki dute jantzi-denda ezaguna, duela gutxira arte. Kandidoren semea, **Joxe Mari**, sastre moduan ere aritu zen; gerora azken honen andrea **Karmen** eta **Juan Luis** semea eta bere emaztea egin ziren dendaren kargu. Oraintsu merkatari txinatarrek bazarra ireki dute bertan.



Foruen Enparantza XX. mendean hasieran. Eskuman **Merkienea** dendaren ate bat.

Merkienea oihal-denda: Txurrukaneko arkupeetatik Zazpibidetarako ertz horretan izan zuten **Odriozola-Nazabal** sendikoek tela-piezak saltzeko denda. Lokala San Migel parrokiarena zen, elizari itsatsitako beste negozio eta etxebizitzak bezalaxe. Gerratekoan alde egin behar izan zutenean, dendako jenero guztia konfiskatu egin zieten militarrek 1936ko udazkenean. Merkienea familia hura ez zen sekula Oñatira bueltatu.

Bankuak

Banco Guipuzcoano zeritzanak ehun urte pasa iraun du izendapen horrekin plazako izkina batean, 7. zenbakian. Duela gutxi **Sabadell** bankuak bereganatu du, eta orain horrela deritza toki berean dagoen diru-etxeak.

Banco Vizcaya izenekoa aurrekoaren parean egon zen gerraosteko zenbait hamarkadatan, **Merkienea** oihal-dendak erabilitako lokalaren zati batean. 1960 inguruan, Kale Zahar aldera, **Bujero** taberna egondako tokira aldatu zen eta hor dirau oraindik sigla luzetxoagoekin.

Banco San Sebastián ere kokatu zen epe laburrean plazako arkupeetako behekalde batean, luzaroan Kale Barriko hasieran jardun ondoren. Jatorrizko eraikin hura eraitsi egin zuten, oraingo Portu kalerantz doan kale-kantoia zabaltzeko.

Caja Rural da arkupe horietara etorri den azkenengo diru-etxea.

Estankoak

Tabakoa eta loteria banatzeko estankoak, jakina denez, estatuaren monopolioak dira eta baimen berezia behar izaten da produktu horiek saltzeko orduan. Plaza aldean bi estanko egon dira azken ehun urtean, gutxienez.

Estanko zaharra: plazaren goi aldean zegoen, arkupeetako denda batean, Ugarte familiaren ardurapean. Gerrateko zurrubiloan, baina, hartarako lizentzia kendu zieten agintari berriek 1936ko udazkenean. Gerraostean beste era bateko gaiak saldu behar izan zituzten **Kontxita** eta **Maria Anjeles Ugarte** ahizpek: poltsak, opari-gaiak edota jostailuak. Geroztik beste erabilera batzuk izan ditu Zuluetatarrak lokal horrek: Oñatiko turismo-bulegoa eta beste opari-denda bat, adibidez.



Plaza nagusiaren egitura berria 1871an.

Irizar estankoa: *Merki*ena denda egondako lokalean jarri zen gerra ondoren. Santos Irizarerri eman zitzaion hartarako baimena. Harrezkero Irizar-Zumalde familiakoek jarraitzen dute bertan. Gaur egun berezitate bi zatitan banatuta dute negozioa: batean tabakoa eta paper-denda, eta loteria bestean.

Zapatariak eta zapata-dendak

Ibarrondotarrak aspalditik aritu ziren zapatari-lanetan plaza-ko 10. zenbakian, orain egunkariak, aldizkariak eta liburuak saltzen dituzten dendan. Roke Ibarrondo izan ei zen sendiko lehen zapataria Oñatin. Haren bi seme, Felix eta Nikolas, Bilbora joan ziren ofizioa hobetzera lau urtez. Felixek alokatu zuen arkupeetako lokala eta Nikolasek Kale Barrian jarri zuen berea. Zapatak konpondu ez ezik saldu ere egiten zituzten garai batean plazakoan. Familia honetako kide askok musikari moduan ere hainbat belaunalditan jardun dute eta badihardute.

Beste aldean, Txurrukaneko arkupeetako ezkerreko ertzean, San Migel parrokiak utzitako tailerrean, sakristau bat baino gehiago aritu da XX. mendean zapatariari gisa: Joxe Idigoras edota Juanito Kortabarria, esaterako. Gerora izozki-denda bat eduki zuen bertan Joxe Mari Martín Barberok.

Ile-apaindegi, gozotegi, okindegi eta beste

Txurrukaneko arkupe horietan, ezkerretik jarraituta, hurrengo atean ere negozio ugari kokatu dira gure gogoenan: gerra aurretik hasita, Anjel Iriarte Panpott luzaroan aritu zen barbero-lanetan; pertsonaia bitxi eta ezaguna zen herrian, ile-apaintzaile izateaz aparte, txistulari ere baitzen.

Panpotten barberia izandako toki horrek izan ditu beste era-biltzaile batzuk ere: Madinatarran Kerizti deituriko gozotegia hainbat urtetan, eta ondoren Ogi barri izeneko okindegia, besteren artean.

Oso oker ez bagagoz, hor inguruan eduki zuen gerra aurretik bere lokala Luis Codina argazkilaria ere. Ez zen, nonbait, fotografo erabat profesionala, baina sasoi hartako zenbait argazki interesgarri zor diogu oñatiarrok.

Erabilera gehiago ere izan dute Foruen enparantza plaza honen bueltan kokatu izan diren denda, txoko eta solairuetan. Hurrengo atal baten emango dizuegu horien berri.



Plaza nagusia (III)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Aurreko bi hilabetetan agertu ditugun bi lanetan Oñatiko plaza nagusiaren bilakaera eta garrantzia azaltzen saiatu gara. Inguru horretan eta hamarkada askotan zehar jarri diren denda, taberna, banku, estanko eta beste era bateko komertzio batzuk ere aipatu ditugu. Baina herriko erdigunean dagoen **Foruen enparantza** horrek beste hainbat bulego, elkarte eta zerbitzuri ere eskaini dio kokalekua. Horietako zenbait udaletxean bertan egon ziren.

Udaletxean kokatutako bestelako zerbitzuak

Azken urteotan kontzejuaren etxetzar horretan udal administrazioari zuzenean dagozkion bulegoak ezagutu ditugu, batik bat. Baina beste garai batzuetan **hamaika erabilera eman zaio eraikin publiko horri**. Beraz, hemen gaur egun ezohikotzat joko genituzkeenak azpimarratuko ditugu:

- **Alondegia:** edariei ezartzen zitzaizkien zergak diru-itu-ri oso garrantzitsuak izaten ziren udalarentzat. Hori bideratu eta kontrolatu ahal izateko, udaletxearen atzeko partean, Lukaseneko kanto aldera, zegoen herriko *alondigia* bere baskulatzar eta guzti.

- **Kartzela:** azkeneko pisuan, ganbaran, teilatupeko gela-txo batzuetan zeuden ziegak, nahiz eta Atzeko kale aldera ematen zuen ate baten ostean kalabozo moduko bat ere bazen. Normalean egun edo gau gutxitarako presoak egoten ziren giltzapean (lapur txikiak, mozkorrek eta antzerakoak), baina goiko ziega haietako batean hilketa lazgarria gertatu zen 1937ko ekainean, gerra zibileko desmasietan.

- **Udaltzainen etxebizitzak:** aguazilek eta euren familia-koek luzaroan izan zuten kontzejuaren etxe honetan bizilekua. Besteren artean, Lorentzo Artza, Pedro Oleaga, Antonio Agirre edota Eujenio Aranguren euren sendiekin.

- **Herriko telegrafoa:** Oñatira telegrafoa 1860ko hamarkadan iritsi zen, baina, dirudienez, azken karlistaldian kendu egin zuten; horregatik, gerra amaitzean, 1877an udaletxera ekarri zuten; postetxearekin batera urte batzuk Kafe Zaharreko eraikinean igaro ondoren, 1885ean kontzeju-etxera itzuli zen; hartarako gelak 2. pisuan jarri zituzten.

- **Herriko lehen telefono-zentraltxoa:** 1909an ipini zen kontzejuaren beheko aldean. Antonio aguazilaren alabak, Eva eta Ramonita Agirre, izan ziren urte askoan zentraltxo horren telefonista arduradunak. Geroago Kale Zaharreko botika gaineko pisura aldatu zen, 1960ko hamarkadan Lizauren kalera eraman zuten arte.



Oñatiko udaletxea gotortuta azkenengo karlistadian (1873).

- **Aurrezki Kutxa Probintziala:** Kutxa honek ere udaletxe-ko gela desberdinetan izan zuen bere egoitza XX. mendearen lehen erdialdean, 1950eko hamarkadan Zaratekora aldatu zen arte, orain *Aker* taberna dagoen lokalera.

- **Casino Oñatiense:** herriko jauntxoek elkarrekin zuten hau. Plaza aldeko etxe batean baino gehiagotan kokatu zen XIX. gizaldiaren bigarren erdian eta XX.aren hasieran. Era jarraian ez bazen ere, hainbat alditan izan zuen bere egoitza kontzeju-etxean; azkeneko 1920ko hamarraldian.

- **Udal Liburutegia:** hasierako udaletxearen atzeko aldean jarri zen 1960ko hamarkadan, beheko kartzela eta beste zati batzuk aprobetxatuz, eta 1981era arte iraun zuen han. Bibliotekari zegozkion zerbitzuak ez ezik, beste ekarpen interesgarri batzuk ere gauzatu zituen, 1970etik aurrera, liburutegiaren gerizpean sortu zen lan-talde batek, Felix Ugarteren ekimenez: esate baterako, aldizkari bat, dokumentalak, argazki-artxiboa edota *Oñatiko Historia eta Arte Bilduma* liburukotea.

Plazaren inguruan izandako ospakizun eta gertakari batzuk

Ezinezkoa da lerro gutxitan azaltzea azken bi mendeetan Oñatiko kalearen erdialde honek ezagutu eta bizi izandakoak. Gure iritziz, garrantzitsuenak direnak laburbiltzeko ahalginak egingo ditugu:

- **Lehenengo karlistaldian (1833-1839),** artean plaza zaharra berritu aurretik, Karlos V.a errege-gurakoa behin baino gehiagotan egon zen bizitzen Lazarragatarren jauregian; etxe horretan atondutako moldiztegitik kaleratzen zen karlisten *Gaceta Oficial deiturikoa*, gerora *Boletín de Navarra y Provincias Vascongadas* izenburua hartu zuena; eta eraikin horretantxe sinatu zuten 1839ko abuztuaren hondarrean Marotok eta Esparterok gerra anker haren nolabaiteko amaiera, handik egun gutxira **Bergarako besarkada** bezala eszenifikatu zena.

- **Oñati Gipuzkoan 1845ean sartu zenean,** udaletxean zenbait bilera inportante burutu ziren; elkarrizketa eta joan-eto-

rri askoren ondoren, urte hartako urriaren 9an sinatu zen udaletxean Oñatiren gipuzkoaratzea. Eta 1847 urtean probintziako Batzar Nagusiak elkartu ziren gure herrian lehenengo aldiz.

- **Azkeneko karlistaldian ere (1870-1876)** plaza alde horrek protagonismo handia bereganatu zuen. Felipe Dugiols liberalak udaletxea gotortu egin zuen, harresiz eta babesgarriz hornituz. Bada garai hartako marrazki bitxi bat. Santa Kruz apaiz gerlariak jardun zuen Dugiolsen aurka. Liberalek herritik alde egin behar izan zuten eta orduko errege-gurako karlista ere, Karlos VII.a alegia, 1874ko abenduaren 16an heldu zen Oñatira.



Prozesioa plazan gora Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarrean (1918).

- Lore Jokoak izeneko **Euskal Jaiak** ospatu ziren Oñatin 1902an eta, jakina, plaza nagusian hainbat ikuskizun, jolas eta festa antolatu zituzten.

- **Gernikako arbolaren kimua** landatu zen 1917ko otsailan plazaren eta pilotalekuaren artean. Osasuntsu eta adartsu jarraitzen du gizaldia bete berri duen haritzak.

- Datorren urteko irailean, berriz, izango dira ehun urte **Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzar garrantzitsua** Oñatin eratu zela. Bada 1918ko aste ospetsu hartan Oñatiko plazan ateratako argazki mordoxka.

- **II. Errepublikak 1931ko apirilean** aldarrikatu zenean, udaletxeko balkoitik hitz egin zieten oñatiarrei egoera berriaren alde zeudenak. Egun hartan errepublikazale sutsu batek balkoi nagusiaren erdian dagoen Oñatiko armarriri koroa kendu ei zion era bortitzean. Kurioso da: Oñatin monarkiko dezente izanda, ez da harrezkero herriko armarrira koroa itzularazteko asmorik agertu; ezta Francoren garaian ere.

- Gerra ostean ere izan zen enparantzan eta inguruetan gertaera, ospakizun eta kontzentrazioerik. Erlijioak eta elizak erruz eta erraz berreskuratu zuten aurretik galdua zuten esparru apurra. **Plaza behin eta berriro bete zen 1940 eta 1965 bitartean aldarrikapen erlijiosoekin:** misioak, prozesioak, eukaristia-kongresua, Andra Mariaren urtea (*Año mariano* zeritzan orduan), San Ignazioren mendeurrena, Arantzazurako mutilen (gauzez) eta nesken (egunez) igoerak, eta abar, eta abar.

- Beste maila batean, Oñatiren izena erbestean ezagutarazi zuena **1953ko martxoko ziklokros mundu-txapelketa** izan genuen. Frankismoari oso ondo etorri zitzaion, baina egia osorik esateko, ikaragarria izan zen Oñatik orduan ere auzolanerako erakutsi zuen borondatea.

- Geroztik ere zenbat gertakari aipagarri jazo den Foruen enparantzan: kontzentrazioak, manifestazio legalak eta debekatutak, era desberdinetako jaiak, kontzertuak, *komerixak*, antzerkiak eta beste asko. Hurrengo alean zehaztuko ditugu gehiago.


TABERNA • JAIETXEA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA 

Plaza nagusia (IV)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Gure plaza nagusia, aurrekoan aipatuez gain, beste hainbat pertsonaia, gertaera, pasadizo eta ekintzaren lekuko eta testigu izan da azken ehun urteotan ere. Halaber, badira eremu horretan orain arte agertu gabeko beste eraikuntza azpimarragarri batzuk ere. Denak hemen izendatzea ezinezkoa zaigun arren, batzuk behintzat gogoratuko ditugu:

PERTSONAIA POLITIKO BATZUK

- Alfonso XIII.a eta Victoria Eugenia errege-erreginak behin baino gehiagotan heldu ziren Oñatira bisita ofizialean. Besteak beste, erregea 1918ko irailaren 1ean Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarraren irekiera-ekitaldira; eta erregina 1923ko irailaren 30ean San Prudentzio-Oñati trenbide-adarra inauguratzera; senarra ez zen etorri, egun batzuk lehenago Miguel Primo de Rivera jeneralak jo zuen estatu-kolpearekin oso lanpetuta baitzegoen.

- Miguel Primo de Rivera diktadore laburra (1923-1929) ere iritsi zen honaino 1925ean. Eta honen nahiz Francoren ministro eta lankide estua izan zen Severiano Martínez Anido jeneral ankerra sarriago, bere seme bat, Roberto M. Baldrich marrazkilari eta diseinatzaile ospetsua, oñatiar batekin ezkondu zelako.

- Niceto Alcalá Zamora, II. Errepublikako presidente are laburragoak (1931-1936) gure herria bisitatu zuen 1933an. Goiko argazkian ikus daitekeenez, herriko plazan neska gazte oñatiar batzuen agur beroa jaso zuen.

- Francisco Franco diktadore luzea ere (1939-1975) etorri zitzaigun Arantzazu eta Oñatira 1944ko irailean, emaztearekin batera. Carmen Polo beste behin izan zen Arantzazun bere biloba Arantxarekin.

- Juan Carlos Borboikoa, 1950ko hamarraldiaren hasieran, oso gaztetan, Donostian igaro zuen urte bete, Miramarko jauregian, ikasketak egin alde, eta Oñatiraino ere hurbildu zen.

- Manuel Fraga Iribarne, Francoren ministro zela, egon zen Oñatin, Arantzazun eta Urbian 1967ko San Juan egunean. Orduko argazki ugari geratu dira.

- Trantsizioaren ondorengo azken hamarkadetan ere maki-na bat agintari, lehendakari eta politikoa hurreratu zaigu, baina hori azaltzeak beste atal oso bat eskatuko luke. Badago, bai, hori ere aztertze gaia.



N. Alcalá Zamora presidentea Oñatiko plazan (1933).

PLAZA INGURUKO ZENBAIT EZOHIKO AGERRALDI

Aspalditxoan Foruen enparantzan mota askotako agerraldiak ikustera ohitu gara: zerbaiten alde edo kontrako manifestazio edo elkarretaratzeak, asmo eta helburu kontrajarrikoak batzuetan. Sasoi batean, ordea, ez zen horrela izaten eta alde batekoak bakarrik ziren zilegi. Francoren diktadura garaiko batzuk gogoratu nahi genituzke:

Agerraldi edota manifestazio-saiakera ez legezko eta debekatu horiek 1960 eta 1970ko hamarkadetan gertatu ziren batez ere, frankismoaren azken aldera; eta gehienetan guardia zibilek edota poliziek indarrez sakabanatzen zituzten. Adibidez, Maiatzaren 1aren edo Aberri egunaren inguruan egiten ziren saio apalak; 1967ko jaietan polizia nazionalak, orduko grisek, jendea majo astindu zutenekoa; 1970ko abenduan Burgosko prozesuaren garaian izandako kale-protesta latzak; 1975eko uda-udazkenean Txiki eta Otaegi fusilatu aurretik eta ondoren egon ziren manifestazio istilutsuak; edota amnistiaren aldekoak trantsizioan. Egia esan, gerora ere izan dira plazan eta alboko kaleetan ertzainen eta manifestarien arteko gatazka zaratatsuak.

PLAZA ALDEKO BESTE HAINBAT ERAIKIN AIPAGARRI

Aurretik esandakoetatik aparte, beste eraikin batzuk ere jaso ziren Foruen enparantza aldean, helburu eta eginkizun desberdinetarako.

• Iturriak

Plaza zaharrean bazen 1524ra orduko bat *Iturrizar* moduan ezagutzen zena, egun Ibarrondoneko sotoan aurkitzen dena. Kokaleku desberdinak izan zituen beste bat era ipini zen 1759an.

Baina ezagunena, jakina, Frantzisko Antonio Elortza jeneral araoztarraren omenez 1882an jasotakoa dugu; herriko beste lau iturri monumentalekin batera eraiki zuten Pedro Jose Astarbe eta Casto Zabala arkitekto bizkaitarren zuzendaritzapean, Juan Carlos Alzaa alkatetzaren denboran. Harrizkoa da, baina jeneralaren bustoa burdinazkoa, Pariseko A. Durenne de Sommevoire enpresan egina. Hasieran orain kioskoa dagoen tokian jarri zen; 1930 aldera kiosko atzean; eta 1950ko hamarraldian egungo tokira eraman zuten.

• Merkatua

Sasoi batean herria haragiz eta arrainez hornitzeko salmenta-tokiak urtero enkantera ateratzen zituen udalak. **Harategi zaharra orain Oñati kafetegia dagoen orubean aurkitzen zen;** arkupeak eraikitzeke lanak hasi zirenean, jesuitak San Ignazio eliza eduki zuten lekura aldatu zen 1850ean, egungo Gaztelekuaren harrerara-edo. Han iraun zuen **1870an okelaren salmenta liberalizatu zen arte.** Harrezkero ez zen harategi publikorik egon.

Eremu horretan egituratu zen, askoz geroago, **merkatu estalia 1927-1928an, Damian Lizaur arkitekto oñatiarraren proiektuaren arabera.** Pelotaleku aldera ematen zuen aurrealdea udaletxearen tankera zeukan. Geroztik hamaika aldakuntza eta gehikuntza izan ditu eraikin horrek gaur egungo ikastetxe eta Gaztelekua bilakatu den arte. Hori dela eta, fruta eta barazkien merkatua eta arrandegia alboko aterpe eta soto berri batera atera ziren duela urte batzuk.

• Eskolak

Gizaldi askotan egon dira **ikastetxeak plaza inguruan.** Antzina, **jesuiten egoitzan, Araoz izeneko jauregian, gaztetxoei latina irakasteko,** eta jesuitak alde ondoren ere jarraitu zuena udalaren kontura.

Ubao errekez bestaldetik jesuiten elizari erantsita herriko **neska-mutikoentzako eskolak** ere izan ziren garai desberdinetan eta XIX. mendearen erdira arte-edo, orain Gaztelekua aurkitzen den paraje horretan.

Neskatilentzako herri-eskola berria egin zen 1924an, Damian Lizaur arkitektoaren planoekin eta parrokiako klaustro aldera begira bi pisutan; 1936ko gerratean espetxe gisa erabili zuten, baina gero berriz irakaskuntzara bihurtu zen.

Neskatilen eskola horri erantsita **1960ko hamarkadan mutikoen herri-eskola jaso zen,** maristak 1963an herritik joan zirenean. Eskola hori merkatuaren porlanezko estalkiaren gainean altxatu zuten; herri-eskola moduan jardun zuen 1979-1980 ikasturtera arte, eta hurrengo kurtsoan izena estreinatu berria zuen **Txantxiku ikastola plazako ikasgela horietara aldatu zen;** han jarraitzen du, geroago birmoldatu zen Santa Anako ikastetxearekin batera.



Foruen enparantza iturriarekin kioskoa jarri aurretik (1920ko hamarraldia)

• Kioskoa

Oraindik zutik dirauen plazako **kioskoaren proiektua ere Damian Lizaur arkitektoari enkargatu zion Oñatiko udalak 1928an.** Doroteo Arrazola zen alkate urte haietan. Ia bederatzi hamarkada hauetan zenbat musika-banda eta taldek ez ote dute hor-tik alaitu, besteak beste, oñatiarron dantzaldiak eta erromeriak.

Kioskoaren azpian gizakume eta emakumeentzako **pixatoki publikoak** atondu ziren, plazaren ertz baten zegoen txabolaren orde.

• Pelotalekua

Plaza zaharrean bazen pelotalekua Lazarraga eta Araoz jauregien artean, kioskoa kokatzen den inguru horretan, hain zuzen ere. Baina **plaza berria itxuratzean, frontoia lekuz aldatzea erabaki zen.** Hartarako lurra Mariano Artazkoz, Lazarraga etxe-ko jaunak dohainik utzi zizkion herriari, baina baldintza batzuekin: garrantzitsuena, egunen batean beste zeregin baterako erabiltzen bazen, lurren jabetasuna beren ondorengoei itzuli beharko zitzaizela.

Materiala, kareharri gogorra, Kale Zahar aldeko San Antone ermita ondoko harrobitik atera zen. Egitasmoa plaza obretan aritutako Antonio Kortazar arkitekto donostiarrek taxutu zuen eta kontratista Emeterio Madinabeitia oñatiarra izan zen. Jatorrizko frontoia oso luzea genuen, garai hartako joko-motek (*erreboteak, bote luzeak, laxoak* eta halakoek) horrelaxe eskatzen baitzuten. Garbi ikusten da hori jatorrizko planoetan eta Gernikako arbolaren ondoan han dago *sakarri* edo *botarria* horren lekuko. Luzaroan pelotaleku ireki hori izan zen txantxikuar askoren kiroldegi bakarra eta gustuko elkargunea.


TABERNA • JATEKETA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

